



2014ko Bizkaiko Bertsolari
Txapelketaren Finalaren
aurkezpena Bilbon.

Kristina Mardaras

BERTSOA ETA BORROKA, BIZIPOZ



NORMALTASUNA ORAINDIK PROBOKATU BEHARRA DAGO



Kristina Mardaras, beste gauza askoren artean, bertsolaria da. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartu zuen lehen emakumea izan zelako da ezagun, bertso munduan. Baina, baita hamaika bertso-saiotako antolatzaile eta entzule gisa ere. Izan ere, plaza utzi zuen, baina, bertsolaritza ez. Egunero egiten du bertsotan etxean eta gertutik jarraitzen du bertso-plaza. Oholtzatik behera begiratzean, ez harritu Kristina bertan ikusten baduzu.



MIREN ARTETXE SARASOLA

Oromiño auzoko baserri batekoa zara, eta auzoko eskolan ikasi zenuen haurtzaroan. Gerora orde, ikasten jarraitu nahi, eta ezin.

Halaxe da. Muga hori deskubritu nuen hamalau urterekin. Orduan bi aukera zeuden: batxilergoa ikasten jarraitu, edo lanean hasi. Eta nik jarraitu egin nahi nuen, baina, amak esan zidan ezin nituela ikasketak segitu. Ezta pentsatu ere. Gu etxe pobre bateko seme-alabak gara eta nik ulertzen nuen zailtasun hori, baina, niri ikastea asko gustatzen zitzaidan. Kontua zen nire ostean zetozen bi nebei zegokiela ofizioa ikastea, eta niri jostea, bordatzea, eta etxeko lanetan aritzea.

Eta oso gaizki pasatu nuen orduan. Erdi gaixorik, negarrez... Baina, handik hila-bete batzuetara ama konbentzitu nuen, eta ikastetxe berri bat zabaldu berria zenez hemendik bi kilometrora, hara joan nintzen administrazio ikasketak egitera. Makinaz idazten ikasi, kontabilitatea, eta horrelako kontuak ikasten ziren han. Hiru urte eskas egin nituen, eta bukatu orduko inguruko fabrika batean eskaini zidaten lana, eta haraxe.

Eta eskolaz kanpo, zeintzuk ziren zure zaletasunak?

Futbolzalea izan nintzen oso. Urte askoan Athleticeko atezain izandako Car-

melo Cedrunen loba naiz ni –ama eta bera neba-arrebak–. Eta gure etxean kirola egin duten gehienak futbolistak izan dira. Neba, bi osaba, lehengusua... lehenengo dibisioan arituak hainbat. Eta nola ez nuen ba ikasiko? Etxean futbole-rako botak eta baloiak izaten ziren opari. Ez niretzako, e! Baina nik nebarekin ekipoa egiten nuen. Baserri ondoan baze-goen landa bat eta han aritzen ginen. Eta oso ondo, gainera. Trebea nintzen, eta horrek bihurtzen ninduen ekipoko bat gehiago. Ez ninduten kentzen! Beti gus-tatu izan zaizkit joko biziak. Nesken jo-lasak eta... jolasten nuen, lagunak eta ba-nituen eta jarduten nuen haiekin, baina,

Kristina Mardaras Sedrun

IURRETA, BIZKAIA, 1957



Iurretako Oromiño auzoan jaio eta bertan hazi zen. Gaztaroan “herri-
ra jaitsi” eta laster sartu zen buru-
-belarri hainbat -gintzatan. Herri
Gaztedin, gau eskoletan euskara
irakasten, edo ikastoletan irakas-
le. Akronimoz eta proiektu kolekti-
boen izenez beterik ageri da bere
bizitza-ibilbidea. AEK, EHE, UEU,
Hik Hasi, Bertsozale Elkartea. “Ipur-
di batekin lau aulki, badakizu”. El-
karrizketa bat baino gehiago egin
dakizkioke Kristinari, eta hau da
horietako bat.

motel samarrak iruditzen zitzaizkidan. Nahiago nuen mutilekin ibili. Sardina latekin autoak egiten genituen, edo es-
parrago latekin kamioiak, eta aitzur txi-
kiarekin bideak egiten genituen, haritz
tantai baten sustraien artean tunelak,
garaieak... Niri hori izugarri gustatzen
zitzaidan.

Orduan neska-mutikoak batera ibiltzen zineten, ala mutil artean zebilen neskatoa zinen?

Bakarra nintzen. Baina gero ez nuen
futbolekin jarraitu, adibidez. Hilekoa jai-
tsi zitzaidanean amak esan zidan: “Ezin
zara joan mutilekin jolastera”. Adierazi
zidan neskekin jolastu behar nuela, mu-
tilekin barik. Bestelako azalpenik barik.
Ze gauza, e? Orduan etortzen zitza-
idan tarteka burura, “zergatik jaio naiz
neska?”. Mutilen askatasuna maite

nuen, eta nesken loturak ez
hainbeste. Orain ez naiz
damutzen eta neska
izatearekin konfor-
me, baina, orduan...

Ez zen futbola soi-
lik, etxeratzeko ere
guk ordua izaten
genuen eta haiek
ez. Nik ate batzuk
zabaltu nituen,
baina asko kosta-
ta, erretolika asko ja-
sanda eta gezur batzuk
esanda ere bai. Auzotik he-
rrira jaitsi orduko edukiko ge-
nituen hamasei-hamazazpi urte, eta
bitarte horretan auzoan entretenitzen
jarraitu nuen. Baina, hemezortzi-heme-
retzi urte genituenean nesken futbol
taldea egin genuen. Orduan Bizkaian
sortu zen nesken liga moduko bat, eta
Durangon taldea sortu zen. Ni izango
nintzen baloia manejatzen ondotsuen
moldatzen zena, nonbait, eta kapitain
ibili nintzen.

Ordurako bazinen bertsozalea ere, ala hori geroagoko kontua da?

Banintzen, bai. Bertsozaletasuna
etxean jaso nuen, lehenik. Aitaren fa-
milia oso kantuzalea zen, eta aitaren
osaba-izeko batzuk trikitia jotzen zu-
ten, eta kantatu. Eta niri asko gustatzen
zitzaidan kantatzea. Eta gero eskolatik
ere bai. Abadeak etortzen zitzaizkigun
katekesia irakastera, eta bederatzi bat
urte nituela etorri zitzaigun abade gaz-
te bat, oso euskaltzalea. Hark erakutsi

zigun euskaraz idazten eta irakurtzen,
euskal kantak ikasi genituen, antzer-
kigintzan aritzen ginen, ipuinak idatzi,
bertsoak buruz ikasi... Abade hark *Ze-
ruko Argia* aldizkariak ere ekartzen ziz-
kidan irakurtzeko, eta idaztera animatu
ninduen. Eta dozena bat urte eskasekin
auzoko berriak bidaltzen nituen *Zeru-
ko Argia*-ra –auzoko ezkontzak, kirol
kontuak... berri sinpleak-. Haurrentza-
ko Euskaltzaindiako azterketa batzuk
egitera ere eramaten gintuen. Eta az-
terketako proba bat izaten zen bertso
bat kantatzea. Galdera batzuk erantzun,
ipuin txiki bat sortu, eta bertsoa. Eta
buruz ikasitako bertso bat denen au-
rrean kantatu behar izaten genuen. Ur-
tero-urtero, hamar eta hamalau urte bi-
tarte horretan, bertsoa kantatzen nuen
han. Eta sariak eta ematen zizkiguten!
Zuk badakizu zer den auzo txiki bate-
ko neskato batentzat Campos



Jarri bertsotan hiru neska eta mutil bat.

**Edo lau eta bat. Eurek ere
sentitu behar dute hori. Egin
behar da, ohitu daitezen
egoera horretara.**

Zergatik ez?”

Eliseosera joan, Bilbora, eta
han denen aurrean ber-
tsoa kantatu eta diplo-
ma jasotzea? Eta txa-
loak! Orduan, etxeko
lanak egiten nituen
bitartean, oheak egi-
ten eta, nire kontura
kopla txikiak asma-
tzen hasi nintzen.

**Bertso-eskolarik ez
zegoen orduan, baina
Durangon sortu zenean han
eman zenuen izena.**

Bai. Bertso-eskolan hasi nintzenean
edukiko nituen hogeita hamar bat urte.
Ezkonduta nengoen ordurako, eta ume
bi nituen. Bertso-eskolak sortu berriak
ziren, 1978an, Durangon behintzat. Eta
zaleak ginenoi gonbidapena bidali zig-
uten. Han elkartu ginen Durangoko ikas-
tolako beste andereño bat, Zornotzako
neska bat, Eibartik etortzen zen beste
bat... Hasieran lau bat edo izango ginen
neskak. Gerora ez zuten plazara jauzi
egin, baina, orduan baginen batzuk. Eta
pare bat urtera edo jende gazte asko
hurbildu zen eta gu geu hasi ginen gaz-
teagoei erakusten. Taldean bazen neska
mordoska bat, eta auzoetan eta kan-
tuan ibili ziren gurekin, baina gero utzi
egin zuten.

**Gaurko begiradatik zaila da
irudikatzen, baina garai haietan
ez zebilen emakume bakar bat ere
plazan. Ispilu falta sentitu zenuen**



Ezkerreko argazkian, Mayi Iza, Maialen Lujanbio eta Kristina Mardaras; eta eskuinekoan, Karmen Larrañaga, Arantzazu Loidi, Maria Jesus Berrotaran eta Kristina Mardaras.

oholtzara jauzi egin zenuenean?

Sumatzen nuen lehenago ere izango zirela emakume bertsolariak. Pentsatzen nuen baietz, baina, ez nekien. Argitaratuta zegoen guztia gizonezkoena zen. Aranaldereen Auspoa sail guztian gizonak baino ez zeuden. Nik pentsatzen nuen nonbaiten egon behar zuela emakumeren batek. Kontziente nintzen ezin zela XX. mendean sortutako fenomeno bat izan. Baina nik ez nuen ezagutzen eta horren falta sentitu nuen. Erreferentzia falta. Nola kantatzen ote zuten, zeren inguruan...

Ezaguna da zuk kantatzen zenuenean beti aipatzen zenuela, hain zuzen, zure emakume izaera eta emakumeekiko bazterkeria. Beti aipatzen zenuela gaia.

Beti saiatzen nintzen. Mugimendu feministak hasi berria zen bertso-eskolen hasierako sasoi hartan. Bilbon, batez ere. Herrian ez zegoen oraindik mugimendurik. Egongo zen talde txikiren bat beharbada, baina, ni ez nintzen jakitun. Eta entzuten nituen Bilboko aldarrikapenak, kantaldiak, bilerak... horren berri baneukan. Baina, niri sekula ez zaizkit gustatu ismoak. Gehiago naiz harri borobila ertziduna baino. Heltzea gehiago kosta

arren, sinisten dut urrunago iritsi daitekeela horrela. Hori da nire izakera. Eta orduan ez zitzaidan hain erakargarria egiten mundu hori. Ez nengoen kontra, baina, ez ninduen erakartzen. Haiekin harremana eduki nuen, gehienbat haiek deituta. Gogoratzen dut feministek antolatuta joan izan nintzela martxoaren 8ko saioetara, batez ere. Baina saio horietatik kanpora ere nik beti kantatzen nuen aldarrikapenen bat. Pentsatuta eramaten nuen ze mezu bota saio bakoitzean, eta han edo hemen sartzen nuen.

Ordurako kalean galtzak jantzita ibiltzen bazinen ere, bertsotara beti gona jantzita joaten zinen garai hartan.

Bai. Niri gaztetan asko kostatu zitzaidan praktikak jantzea, ze normalena zen neskek gonarekin joatea. Baina niri praktikak ere gustatzen zitzaizkidan. Eta nire ama joslea zen, eta nire lehen praktikak berak josi zizkidan. Senargaiarekin motorrean ibiltzeko beharrezkoak nituela esaten nion. Eta gero ohitu egin nintzen praken erosotasunera. Baina bertsotan hastean pentsatu nuen irudian ere antzeman behar zuela berritasunak. Eta erabaki nuen oholtzara igo behar nuenean gona eramatea, gehiago antzeman zedin emakumea nintzela. Gauza bat da kantatzen duzuna, baina irudia ere hor dago. Argazkiak hor gelditzen dira. Eta nik irudi hori hor gera zedin nahi nuen.

kumea nintzela. Gauza bat da kantatzen duzuna, baina irudia ere hor dago. Argazkiak hor gelditzen dira. Eta nik irudi hori hor gera zedin nahi nuen.

Irakurri izan dut orduan gizon batzuek uko egin ziotela zurekin kantatzeari.

Niri zuzenean ez zidaten esan, noski, baina, jakin nuen, bai. Eta elkarrekin kantatutakoak ginen saio batean baino gehiagotan! Baina, badakizu, zenbat eta gehiago dominatu teknika, orduan eta gehiago ausartzen zara pentsatzen duzuna esaten. Teknika menperatu arte, ni behintzat bareago ibili nintzen. Hasieran ez nintzen gai nahi nuena esateko. Hogeita hamar urterekin bertso-eskolan hasi eta hogeita hamalarekin plazan nenbilen. Eta bitartean gau-eskolak ematen, umeak hezten, etxea eramaten, magisteritza ikasten, eta konpromisoak ere topera lanean. Etxean, familia moduan oso ondo moldatzen ginen, baina, tarte handirik gabe. Orduan, plazaz plazako ibilian joan nintzen trebatzen, pixkanaka, eta gauzak argiago esateko gai izan nintzenean, deserosoagoa bihurtu nintzen. Egia da ez dela erraza. Ni han nengoenean ezin zuten esan nahi zuten guztia nahi zuten bezala. Emakumezko

buruz hitz egiteko modua aldatzen zitzaien, nahi ala ez. Gizonezkoek askatasuna galdu zuten.

Eta zerk eutsiarazi zizun? Zein zen zure kanturako motibazioa?

Ba, egia esan, neketsua egiten zitzaidan, plazako jarduna bera. Gozamen iturri zen, baina baita min iturri ere. Eguneroko martxaren zamaz gain, oholtzako sufrimendua ere handia izaten nuen nik. Eta nik garbi neukana zen atzetik neska gehiago etorri artean jarraituko nuela, baina haiek iristen zirenean plaza utziko nuela. Nirekiko esaten nuen: "Iraun. Deitzen dizuten bitartean, neska gehiago etorri arte, segi." Gero erretiratuko nintzen eta kito. Gazteagoak hasi zirenean, ikusten nuen nahiko ondo moldatzen zirela, eta haiengan ez nuen hainbeste sufrimendu ikusten. Gerora konturatu naiz haiei ere berdina gertatu zitzaiela. Baina kontatzen ez baduzu inork ez daki sufritzen ari zarenik. Gerora konturatu naiz. Hala, plaza utzi nuen berrogeita askotxo urterekin, eta geroztik ez naiz plazara itzuli. Harrapatzen banauzu eta esaten badidazu "gingo dugu bertsotan orain?" bertsotan egingo dut. Baina, esaten badidate hamabost egun arinago bertsotan egiteko, ez dut lorik egiten.

Orain jakina da azken urteetako emakumeen saioak eta elkarguneak garrantzitsuak izan direla bertsolaritzaren garapenerako. Baina, zuek ere antolatu zenituzten orain hamarkada batzuk emakumezkoen saioak eta topaketak ere, ezta?

Saiakera batzuk egin genituen. Bat gogoratzen dut, emakume batzuk Donostian kantatu genueneko. Uste dut Amaia Agirre izan zela, Arantzazu Loidi, Itxaro Borda, eta Algortako bi ahizpa, Iriondota-



Argazkian Mardaras eskuinean. Bertso eskolek indarra hartu ahala, belaunaldi berrietan emakumezkoen kopuruak gora egin zuen etengabe.

rrak. Gaiak aurretik emanda egin genuen saioa. Donostian bazegoen halako talde feminista bat eta baliteke handik hots eginda izatea. Hondarribian ere Emeki taldeak antolatu zuen bertso-saio bat martxoaren 8aren inguruan, eta Maialenek eta biok kantatu genuen Egaña eta Peñagarikanorekin, eta hango jendearekin batera saiatsu ginen bertso-munduko neskak biltzen, eta mugimendu bat sortzen. Pake Garcia eta Maria Jesus Berrotaran saiatsu ziren horretan. Behintzat jabetze bat edo emakume izatearen kontzientzia hartze bat gertatu zedin. Bilera batzuk edo egin genituen bizpahiru urtean. Nahi genuen neskak biltzea, baina ez genuen lortzen. Neskak bakarrik ez ziren animatzen. Bertso-eskoletako mugimenduan neska-mutilak elkartzen ziren, herrialde mailan, lehiaketan harira... Eta taldetasun hori bizi zuten. Orduan neskak eta mutilak elkartu genituen 1994ko Bertsolari Gazteen Topaketan. Baina bilera batzuetan neskak bakarrik ere bildu ziren. Dena daukat koadernotan bilduta. Noizbait ganbara txukuntzen hasten naizenean han azalduko dira kontuak!

Aldizkari honetarako Miel Anjel Elustondok egin zizun 2005eko elkarrizketan honakoa bota zenuen: "Sei emakumezko kantatzea arraro egiten ez denean, orduantxe izango dugu normalizazioa". Orduan, ahal

dela, jada normala da.

Joan dira urte batzuk, eta...

Nola ikusten duzu kontua?

Emakumezkoak kantuan ikustea normaltasunez hartzen da, baina ez da normala sei batera ikustea. Hori oraindik gogor samarra da askorentzat. Baina horrelako saioak badaude, eta ikusi dut progresio bat. Interesantea iruditzen zait ikustea gu geu ere ez gaudela ohituta elkarrekin kantatzera eta saio horiei esker horma batzuk apur-tu direla. Kanta dezakegu guk nahi dugun gaiei buruz. Guk barre egin

gure buruari. Eta nik izugarri gozatzen dut. Aldea izugarria da. Askoz solteago, askoz konfiantza gehiagokaz kantatzen dugu.

Orain urte batzuk nork hitz egiten zuen hilekoari buruz, edo titei buruz edo beste gauza askori buruz? Edo nork hitz egiten zuen mutilek mutile-

kin eta neskak neskekin bizitzearen eskubideari buruz? Ez zuzenean, ez zeharka, inork ez. Eta gaur egun horretaz hitz eginaz gozatzen dugu, eta asko betetzen nau horrek. Ordua zen! Baina, normaltasuna oraindik probokatu beharra dago. Eta hori egin daiteke. Jarri hiru neska eta mutil bat. Edo lau eta bat. Eurek ere sentitu behar dute hori. Egin behar da, ohitu daitezen egoera horretara. Zergatik ez? Jendeak hori ere ikusi behar du. Eta esango du "Kontxo! Lau neska eta mutil bat!". Ba, bai. Aldatzen ari da kontua eta gizarteari ispiluak eman behar zaizkio, ohitzen joateko. ●

